

BEHARREZ EGIN DUT!

Pertsonaiak:

GILEN: 23 urte

KAIET: 23 urte

(Akzioa kiroldegiaren kanpoaldean gertatuko da. Elizatik hamar kanpaikada entzungo dira laster eta kalea hutsik dago; giro lasaia barrundatzen da. Eszenatokiaren erdian farola bat eta haren azpian bizikleta baten katea konpontzen ari den mutil gazte bat. Kiroldegitik datorrela ematen du; soinean bizkar-zorro bat darama.

GILEN: Trasto puta hau! Buruhaustek besterik ez dizkit ematen!

Behin eta berriz saiatu ostean, lortu du, azkenean, katea ondo kokatzea. Lurretik pozik jaiki eta bizikletan esertzera doanean, bat-batean, ezkerreko aldetik beste mutil bat agertzen da korrika batean. Aurpegia estalia du eta ezin da bereizi nor den. Zirt edo zart, bizikleta atzeko esertokitik heldu, eta tiraka hasten da lapurtu nahian.)

GILEN (*hanka bat aulkian eta bestea lurrean ezarriak dituela, mutilari begira*): Eee!! Eee!! Baina, zer ostiatan ari zara??

(Tiraka ari dira biak tarte batez, purrustaka eta marmarka, batak ez besteak amorerik eman gabe.)

KAIET (*Gileni begiratu gabe bizikletatik tiraka*): Emateko ostia!! Emateko bizikleta zikina, arraioa!!

GILEN (*haserre batean*): Zikina?? Zikina?? Madarikatua!! Nik emango dizut nik ostia ederra!!

(Gilenek, arin batean, bizkarrean daraman motxila esku batean hartu eta kolpe sutua ematen dio Kaieti buruan. Honek bizikletatik esku bat askatu eta babesten saiatzen da; hala ere, Gilenek kaskatekoak ematen jarraitzen dizkionez, gora begiratu eta motxila eskuetatik kentzen saiatzen da. Baina aurpegira begiratzen dionean, Kaietek Gilen berehala ezagutzen du.)

KAIET (*ahopeka bizkar-zorroa askatuz*): Gilen?

GILEN (*bere izena aditu gabe kolpeak ematen jarraitzen du*): Kaikua!! Gizatxar nazkagarria!!
Petrala!!

KAIET: Gilen!! Nahikoa da, ostia!!

GILEN (*beldurtuta atzera egiten du bizikleta lurrera botaz eta motxila ezkutu baten legez erabiltzen du*): *Kaguen Dios!* Orain kaleko lapurrek haien biktimen izenak interneten topatzen dituzte, ala?

KAIET (*puzka*): Ez esan ergelkeriarik! Ez dakizu nor zaizen? Ez nauzu errekonozitzen, ala?

GILEN (*Ironiaz*): Ez dakit argi falta edo zurekin egotearen emozio faltagatik izango den, baina ez, *buffa* eta txanoarekin ezagutezin zaude.

KAIET (*txanoa eta buffa kentzen ditu*): Neu naiz, Gilen: Kaiet.

(*Isil-isilik gelditzen dira biak, elkarri begira. Kaietek barre urduria eginez, eskua luzatu eta farolan jartzen da jostakin.*)

KAIET: Zer? Zer moduz zabilta? Ez nekien Lezora bueltatu zinenik.

(*Hala ere, elizako hamar kanpaikadak jotzen hasten direnean, eskuak laban egin eta kaskarreko galanta hartzen du buruaren alde batean. Arin batean kokatzen da berriro.*)

KAIET: Zer? Dena ongi, beraz?

GILEN (*Garrasika hasten zaio berriz, motxilarekin joka*): Baina nori okurritzen zaio bizikleta lapurtzea?? Pepelerdoa!! Astakirtena!!

KAIET (*bere burua babestuz eta Gilenengandik urrunduz*): Beharrez egin dut, *joder!*

GILEN (*segitzari eta jotzeari utziz*): Bai zera! Gezurra!

KAIET: Ezetz ba! Egia diot! Bestela ez nintzateke hemen egongo, gaueko hamarretan sastraka batzuen atzetik ea norbaitek bere bizikleta noiz askatuko itxaroten!

GILEN: Lapurra eta gainera astoa! Alikate batzuk erabili beharrean, pelikuletako kriminal baten moduan sastraka atzean itxaroten.

KAIET (*hasperen eginez*): Hori nik ere badakit, *no te jode!* Baina ez dut alikate erraldoi batzuetan xoxik gastatuko behin baino ez erabiltzeko!

GILEN: Behin baino ez, eta niri tokatu behar izatea ere! Izan potroak eta *Dechatlonen edo Forum Sporten* lapurtu, eta ez kaleko tipo errugabe bati!

KAIET: Baina zer uste duzu, *Eroskin* lapurtzea bezain erreza dela bizikleta oso bat dendan lapurtzea, edo zer?

GILEN: (*Ironiaz*) Bizikleta osoa? Zuk zatika lapurtzen dituzu, ala?

KAIET: Lehenengo aldia da, eta azkena; ez dut esperientziarik sektore honetan.

GILEN: Ez didazu alde zure aurretik zure curriculumak irakurtzen utzi, beraz, ez dakit behin bakarrik egin duzun, ala noizbeinka errepikatzen duzun kontua den.

KAIET: Hara bestea! Txistezale aparta institututik irten zinetik! Unibertsitateak gizondu egin zaitu, ezta?

GILEN: *Joder*, Kaiet, mesedez...

KAIET: Aii barkatu... militatzen zabilzanetik inozokeri gutxiago ahotik.

GILEN: Inozokeri gutxiago edonoiz. (Hatz batekin burua seinalatuz) Ez argitara ekarri motza zarela.

KAIET: (*Barreka hasten da*) Tira, ez izan hain sentibera! Zirikatzen ari nintzen!

GILEN: (*brastakoan*) Eta zuk zelan dakizu militatzen nabilela?

KAIET: Nik gauza asko dakizkit. Badakit zuzenbidean graduatu zarela, adibidez. Baita edozein azterketa hasi baino lehenago bi aldiz joan behar izaten zinela komunera ere. Eta idazten zenbiltzala hirugarren aldiz joatea gustatuko zitzaizukeela.

GILEN: (*puzka mespretxuz*) Puff... hori bai jakinduria! Institutuan berdina egiten nuen.

KAIET: Institutuan "*cofrador del frac*" izango zinela esaten zenuen eta orain militatzen zabilta.

GILEN: Institutuan Iker Jimenez nuen gusutuko, Kaiet; burua erdi nahastua nuen garai hartan. Orain, ostera, argi ditut gauzak.

KAIET: A bai? Eta zer duzu hain argi, ba?

GILEN: Ba... adibidez... oposaketetarako ikasten hasiko naizela.

KAIET: Hara, bai orijinala, laster beste zonbi bat gure artean. Eta zein oposaketa jakin badaiteke?

GILEN: Ogasuneko agentea izateko.

KAIET: (segundo batzuetan nazka aurpegiarekin begiratzen dio) Zuri oraindik ere Iker Jimenez gustatzen zaizu, ezta?

GILEN: (purrust egiten du eta besoak gurutzatzen ditu beste alde batera begiratzuz).

KAIET: Bueno, eta zu zertaz gogoratzen zara? Zer dakizu nire inguruan?

GILEN: Ba, ezer gutxi.

KAIET: Bai zera! Zeozer jakingo duzu! Tira, busti zaitez! *Zomolokeriren* bat okurritzen bazaizu ere!

GILEN: Mozolokeria, mozolokeriren bat okurritu. Bai... bueno, gogoan dut dislexikoa zinela eta gehiago borrokatu behar izaten zenuela ikasketak aurrera eramateko.

KAIET: (*tonu alaiaz*) Hor ba! Banekien zerbaitetaz akordatuko zinela! Eta? Zer ikasi dut?

GILEN: Ez dakit.

KAIET: Bai, badakizu. Zergatik esaten duzu ez dakizula?

GILEN (*gogo gutxirekin*): Soldadura.

KAIET: Eta zergatik diozu horrela? Ofizioa gutxiesten?

GILEN: Baina zer diozu? Nik ez dut horrelakorik egin!

KAIET: Ez da nahikoa, ala?

GILEN: Ez dudala gutxietsi!

KAIET: Gutxiago balio dut unibertsitateko karrerarik ez egiteagatik? Ba jakin dezazula gaur egun gazte guztiak gaudela berdin antzeran! Kakaztuta! Eta gainera, soldatzaile falta dago herrialde honetan! Gremioetako ofizial askoren premiaz gaude!

GILEN: Ostia, Kaiet, ezetz! Ez dudala ofizioa gutxietsi! Gure aitona galdaragilea zen, eta harro! Gure etxeke langilerik finena!

KAIET: (*besoak gurutzatuz purrustaka*): Zu bai zu txirriporroa! Beharbada gehiago saiatu behar nintzen bizikleta kentzen!

GILEN (*esan diona sinetsi ezinik*): Zu bai zu kaikua!

(Kaietek hasperen eginez, sorbaldak beheratu eta lurrean jesartzen da kopeta esku artean bermatzeko. Gilen mutu gelditzen da berari begira; urduri eskuak igurtzi eta zalantzati bere ondoan jesartzen da.)

GILEN (*goxo*): Ba... zombien harira, badakizu Cordyceps generoko onddo batzuek inurriak parasitatu dituztela eta zombiak bilakatzen direla handik gutxira? Onddo bat hazten zaie buruan. (*Etenaldi bat elkarri begira. Gilenek bat-batean amaitzen du etenaldiarekin.*) Eta zer pasatu zaizu, ba? Zerk bultzatuta lapurtu nahi zenidan bizikleta?

(*Kaietek burua jaiki eta zuzenean begiratzeko dio begietara*)

KAIET: Bizikleta bat zor diot bati. (*Irribarre tristeaz*) Zorretan beti, gogoratzen?

(*Elkarrengandik oso hurbil daude eta begiradek gero eta pisu handiagoa dute. Luzaroan jasan ezinik, biek batera aldentzen dute begirada, aurrera so eginez.*)

GILEN (*Ahots leunaz*): Institutuan ez zinen zorretan ibiltzen; nahiago izaten zenuen zuk zeuk babak eltzetik atera.

KAIET (*harro, bizitu egiten da*): Egia! Mutil abila! Kalekume aparta! Bai, nik neuk ateratzen nituen babak iltzetik!

GILEN: Eltzetik, eltzetik atera.

KAIET: Horixe ba! Oraindik ere halakoa naiz, ez pentsa! (*irribarre egiten dio eta jostakin, besoa luzatu eta Gilenen sorbaldan pausatzen du.*) Denen gustukoa, dudarik gabe.

GILEN (*Nazka aurpegia jarriz, begirada aldentzen dio Kaieti*): Goregi duzu egoa, Kaiet. Gehiago puzten bazara laurogei egunetan baino lehenago emango zenioke buelta munduari.

KAIET: Edo Harry Potterren izeko Marge harrapatu.

GILEN (*harrituta*): Ez nekien Harry Potter gustuko zenuenik...

KAIET: Ba nik badakit institutuan friki hutsa zinela, Harry Potterrekin obsesionatua zeundela. (*etenaldi txiki bat*) Harry Potterrekin eta nire ipurdiarekin.

GILEN (*lotsatuta*): Zer?? Hori ez da egia! Ez esan txorakeriarik!

KAIET: Hau bai ederra! Gilen, ez egin itxurarik nire aurrean, begiak joaten zitzaizkizun heziketa fisiko osteko dutxetan. Bat ipurdira eta bestea zakilera. Abilezia kamaleonikoa zurea!

GILEN (*are lotsatuago*): Ezetz ba!! Ez dela egia!! Pasatzen dena da harroputz galanta zarela eta noizbait zure gainean begiak jarriz gero, zurekin obsesionatuak geundela pentsatzen zenuen. Ba, jakin dezazula oso normala dela besteen gorputzenganako kuriositatea izatea; batez ere gure garapen prozesuan. Adin horretan ilea hazten zaigu arrautzetan. Oso ohikoa da gainerako gorputzetan arreta jartzea.

KAIET (*handikeriaz*): Bai, baina kontua da zure begiak nire larruazalean josten zenituela. A zer arreta handia zurea!

GILEN (*puzka, zer erantzun jakin ezinik*): Aditu, Kaiet, niri adarra jotzeko gogoz bazaude, jakin dezazula ez nagoela bat ere umorez, eta gainera...

KAIET (*Gilen moztuz*): Ba, ni banengoen, bai, zure ipurdiaz itsutua. Ni ere zonbi baten moduan adurra neriola. (*Barre egiten du*) Ez dakit nola ez zitzaizkidan onddoak hazi buruan.

(*Elkarri begira gelditzen dira berriro ere. Azkenean, biak batera begirada aldendu eta gorputz osoa biratuz, aurrera egiten dute so.*)

GILEN (*xuxurlaka, eskuak igurtziz*): A bai? Benetan?

KAIET: Ba, egia esan, bai. Apur bat txoratua ninduzun. Bihotza *burrundaka* hasten zitzaidan zure ondoan egotea egokitzen zitzaidanean.

GILEN (*Ahopeka*): Burrunbaka. Bihotza burrunbaka.

KAIET: Ez zitzaidan nabaritzen, ala? Tenteldu egiten nintzen zure aurrean. Tenteldu eta hiperaktibo bihurtu.

GILEN: Egia esan, ni ere urduritu egiten nintzen eta burua nahasten zitzaidan. (Baxuago) Nire lehenengo *crusha* izan zinen, badakizu?

KAIET: Bai, argi dago.

GILEN: Jesus, Kaiet! Giroa zapuzten aparta zara, gero!

KAIET: Baina ez haserretu, ni ere galdua nengoen! Paparrean ilea hasi zitzaizunean galdua, eta baita horretaz konturatu nintzenean zer pentsatu ez nekienean ere. Maddalenek asko lagundu ninduen.

GILEN: Zer?? Nire lehengusinak?

KAIET: Ba, bai...

GILEN: Madarikatua! Berak bazekien eta ez zidan ezer esan?

KAIET: Ez zaitetz baztertua sentitu, Gilen! Ezer ez esateko eskatu nion.

GILEN: Baina nire lehengusina da! Niri zor dit leialtasuna! Eskerrak irlandan dagoen, bestela akabatu egingo nuke!

(Kaiet guztiz jiratu eta Gilenek ere bere burua are gehiago biratzen du bestea zuzenean begiratzeko zentimetro gutxira. Kaietek eskua luzatu eta Gilenen sorbalda laztantzen hasten da. Pixkanaka-pixkanaka gorantza darama, bestearen masailera heldu arte. Hori ere emeki ferekatzen du.)

KAIET (*goxotasunez*): Gilen, gauza bat eman nahi dizut.

GILEN (*goxotasunez*): Nirekin ere zorretan zaude ala?

KAIET (*Gilenen ilearekin hasten da jolasean*): Bueno, hala ulertu nahi baduzu bai, bizikleta lapurtzen saiatzeagatik.

GILEN: Katea berriro ondo jartzen lagunduko didazu?

KAIET: Bai, hori nire kargu.

GILEN: Bizikleta garbituko didazu?

KAIET: Jesus, bai bale, hori ere nire kargu, baina txo, eman nahi dizudana beste gauza bat da.

GILEN: Zer?

KAIET: Musu bat. Musu bat eman diezazuket?

GILEN (*listua irentsiz, xuxurlaka*): Diezazuket esan duzu... ahal dizut esan beharrean, diezazuket esan duzu.

KAIET: Nahita izan da.

(Kaiet Gilenen ezpainetara hurbiltzen hasten da)

GILEN (*ahopeka*): Baina zorretan ere esan duzu...hau ez duzu beharrez egingo, ezta?

KAIET: Ez, Gilen, ez. Hau ez dut beharrez egingo.

(Kaietek kopeta Gilenen kopetan bermatu eta ikusleei bizkarra emanez musu ematen dio Gileni).

AMAIERA